

PRAISHKU

BAKARIZKETA (MONOLOGOA)


José Artola-k izkribatua



DONOSTIYAN
J. BAROJA TA SEMIAREN MOLDIZTEGIAN

1909

TV
97



M- 83084
F- 88186

40497

PRAISHKU


BAKARIZKETA (MONOLOGOA)

José Artola-k izkribatua



DONOSTIYAN
J. BAROJA TA SEMIAREN MOLDIZTEGIAN

1909





Sayatu ezkerro,
zerbait da ezpero

On Eugenio Gabilondo-ri donkitua

Iruditegiyan azalduko da PRAISHKU-ren baserri jabearen jan gela edo *comedorea*. Erdiyan maya zapi zuriyakin eta gañean plater, botilla, baso ta gañerakuak baskaltzeko jarriyak. Alde batian kucha edo armariyo bat jan geletan oi diran plater, baso eta beste gauzakiñ, eta beren artian botilla bat señalagarri edo *etiqueta* batekin. Egillea azalduko da Goyerri-ar jantziyan: abarka, praka ta gañerakuakin. Burtiña alchatzerakuan, iruritegiya iñor gabe; andik pishkabatera sartzenda PRAISHKU alde guztiyetara begira.

PRAISHKU

Alare, alare : noiz bait irichi naiz Donosti pare gabe ontara. ; Zer ederra dan! Gezurra diruri gizonak egindako lanak dirala abek. *Abejondayola* au orla egitia pentsatu zuben Joshemaritarrari. Guk, masalastua ta bustiñakiñ echol zarpatzu bat egiten badegu, iruritzen zaigu beste munduko lantegi enbat egin degula. Emen ikusten diran gauzak ; Jesús! ezin sinistu litezke bestek esango balitu ; bañan ; zeñek du *politika* edo *talentua* oyek guztiyak buruan erukitzeko?...

¡Zori oneko *San Tomás*! Egun au dala meriyo itzultzen gera gezur ta bar echetik kale aldera, eta bapo... Urtean lau *San Tomás* bear ginduzke izan,

¿ez da egiya?... (echea miratuaz) ¿Bañan eche ontan ez ote da iñor? (ojuka) ¡Eup... norda emen... eztu iñork aitzen?..

Ez dute lapur bildur aundirik.

Eche au bera dala uste det bada, oker ez bana-bill gure baserri jabearena ; ¡ba, ba! Eche ontakuak ere *San Tomás* izango dute, atea zabal zabalik utzi, ¡zer edertasuna! giltza ateak berak dauka, eta emen iñor ez, ¡au mauka! orra nola diran kontuk eta komerik, ni maizter naizela, ne-roni nagsi-yen nagusi.

Bañan len asi naiz kontatzen ta... emengo gauzak! joan *Bolibarrera* ta ¡aaa...! ango *trompiyak*, *trompetak*, eta ango mu duak abua zabalik. Joan *koncho* edo *koncha* deritzayon orrera ta ¡ooo...! joan plazara ta ¡ja, ja, ja! Ura gustua : ango chorizo usaya berak baliyo du gure eheko otordurik one-nak bañan geyago.

¡Arrano, arranua! badago anchen gauza ikusgarri franko ; ango abarka, itai, soka, poto, zintzarri, achur ta gañerakuak.

Aškora batzubei begira nagola billatzen det Joše Zintzur, eta jorik onla bizkarrian diyot :

(ontan jotzen du maya)

- Eup... Keašo Zintzur? ¿Zer modu inguru abetan? eta diyo :

—Ondo mutill, zeñek esan baserritarrak gerala *jarrano pola!* mundu guziko aberatzak bañan geyago baliyo diagu orain, ¿zer ustedek? eta, to ; esanaz eman ziran akulluen kirtena aňako lukainka mutur bat, eta ogi opill guri guri baten puška. Ari kozk egiñaz ari giñala, alderatzen zaigu, erdi purdiko e daldun kanta saltzalle alako bat, eta diyo :

—*Buen apetito?*

—Ta iri zer dik; jango ukek edorrek ere baukek, ik ere ezagun dek bai, lukainka bañan bakallua geyago jaten dekela, orain ere atze alde ortatik puska galanta daramak zintzilik. *Mar mar* egiñaz an joan zan. Ondoren billatzen degu *Echekalte* deitzen diyoten bat, eta *zapla*; lenbiziko lana:

—¿Keaño jaunak, emengo aldi?

Bai.

—Sagardo ona nun dago erakutsiko dizutet nik, eta esan eta egiñ, joan giñan *Barbara* enea eta, ango *puntziyuak*, batek salto, bestiak bertsua bota, bestiak kantatu, ontan ari giñala sartzen da *Arbi-sha* isendatzen dan bat; aguarua izan bear du; ordu betian ogei baso besterik etzituben eran. Aye-kin batian guk ere *zipla* ta *zapla*, eragiñ puztutu arte, eta ondoren bertsuetan asigiñan, ta datzan, ta anka baten gañean jartzen ta. . ta .. Ez dakit nik sagardo charra zan edo ezan, gaitz egin ziran, zoratu, ichutu, eta bestek aindean eraman omen-induten petril gañera. (Egoten da piska batean pentzatzen)

Ango itsas aire preskuak burua arindu ditanian, asinaiz gauzen billa, eta arkitu naiz ez pipik, ez tothik, ez diru eta ez ezer. Ez dakit ostu egiñ diraten, edo galdu zaizkitan. ¡Au misheriya! ta baserrira joan bear. ¿Eta andria i agindutako periya? ta arrek jaiko diran muthurra!... Ba, ba, onena izango det, emen dauden gauzak artu eta echera joatia, esango diyot erosi egiñ ditutala... berdin emen iñor eztago, eta ez du iñork jakingo. Bai, bai, artu eta *aide* echera

Len nituben gauzak bestentzat,

emen daudenak neretzat.

Ariyo jaunak, au ez ta pekatu.

(Asten da eskuetan zerbait artzen bezela eta osteragelditzenda).

— 6 —

Bañan orain gogo atzen naizela:

¿Ez alda obe ostutzia
bañan neronek ostutzia;
bapo emen eran ta
tripa ondo guritzia?

Bai, bai, ta gañera egarri bat badaukat iruritzen
zait sua daukatala barrenen, ¡nola ez! lengo ibille-
ra char ayekiñ erdi kraskatua nago, ¡u...! (eztarriyari
karrakara eragiñaz) goizeko lukainkaren *sainetia* etortzen
zait sugurretara; (artzen du *armariyo* gañian dagon botilla).

Ea, proga zagu zer dagon emen.

(Irakurtzen diyo botillari chartela edo etiketa.)

¡*Kariñena*...! *kariñena*? ¿Oi zer ote degu au? ¡aa...!
naiko du esan *Ariñena*: beaz kontu ortan onek egin
go dit mesederik *aundiyena*...

Badiruri bertsuak somatzen dituala; ontan ere
lagun bat banu abiyatuko nitzake, bañan ¿zer la-
gun oberik *Periñena* edo *Tariñena* au bañon... ea,
alimo, *Joše Jeolimo*. Kontu artu nolakua ateratzen
dan. (Eztarriyari bi edo iru igortzi egiañaz).

(Kantari) Eran bañan lenago

nai zaitu pamatu
zori onian naiz ni
zurekiñ elkartu;
nere buru pishua
bear nazu argitu,
erremeriyo ona
zaitu nik arkitu,
chit gustora nai zaitut
barrenara sartu. (Eraten du)

(Botillari begira egon da gero esaten du).

¡Au mama. ! banekiyen nik *erretulo* polit orren
izeneko erariya etzala nolanaikua.. Bai sendua
dala, eztarriyan *marka* uzten du. (Oju edo erdi irrintzika)

— 7 —

Aupa mutillak... au ganga... Biba *San Tomás* (irrintzika) *uju-iji-aja-jaa*... au umoria jarrit; bañan barrenak kiška¹du bear ditubela diruri. Beriz ere erango ez det bada onla *baltsamua*? bai, orišen bai beñepeiñ.

(Kantari) *Bon biñ, bon biñ,
de bueno de biño
de la San Martín.* (Eraten du)

¡Bapo! len baño sei *kuarto* geyago baliyo ditut; bañan jzer berua dan...! len bañan argi geyago daudela iruritzen zait... au chorabiyua... (Balantzaka) au otzikara ..! eztarrika su tan daukat... (ikaraturik) uste det miñ egin bear zaitela; ez ote da emen iñor laguntzeko? abek tripako miñak. ¡Zer da au... erari char enbat erango nuben ¡ai.., ai! ez nago ondo. (Ojuka) Joše, Joše, azkar...

(Bitarte ontan chamarrak eta beste erropak askaturiz ibiltzenda asnase presko billa).

(Leyuan) Au aize gozua senti da emen. ¿Zer?... non nagon? Nagusiyen echian... ¿Ez dala au nagusiyen echia? ¡Ederra dek! (Aurreraturik) Nuan, nuan emendik lenbait len aberi enbat egiñ gabe, bestela norbait etorri ta lapurtzat artu ez nazan. (Jendeari) Ez gero esan iñori emen izandu naizenik, ariyo jaunak.

Bon biraje. (Irteran maya jo ta botatzen du gauza ta guzi).

BUKAERA

9 August

10 88

10 890

21

BUKAREA



